



Erromaren sorrera

Erromako elezahar batek dioenez, antzina bi anaia biki bizi izan ziren, Romulo eta Remo izenekoak. Jaioberritan, sehaska batean sartu eta Tiber ibaiaren uretan utzi omen zituzten anaia biak. Baina egun hartan, ekaitz Itzel baten ondorioz, Tiber ibaiak gainezka egin zuen. Urak saskia eraman zuen, harik eta pikondo baten alboan gelditu zen arte.

Anaia bien negar garrasiak entzunda, otsoeme bat hurbildu eta saskia aurkitu zuen. Harrez errukiturik, elikatu egin zituen, bere kumeak izango balira bezala eradoskiz. Azkenik, inguru haietan ardiak zaintzen zebilen artzain batek haurrak aurkitu, etxera eraman eta bere seme-alabekin batera hazi zituen.

Anaia biak gizonduraren zirenean, erregearen soldaduek Remo atxilotu zuten. Orduan, artzainak Romulori deitu eta egia oso kontatu zion.

- Romulo -esan zion-, gauza bat jakin beharra daukazu: ni ez naiz zure aita. Zu eta zure anaia Numitorren bilobak zarete lurralde hauetako benetako erregearen bilobak. Egun tronuan jarrita dagoen gizonak zion aitonari agintea kendu, ama hil eta zuek biak Tiberreko uretara jaurtitzeko agindu zuen, zuek bertan itotzeko. Alabaina, jainkosen nahia izan zen zuek bizirik ateratzea. Otsoeme batek ibaiertzean aurkitu eta bularra eman zizuen. Orain, gizon doilor horrek, hiltzaile horrek, zure anaia giltzapetu du eta hiltzeko asmoa du. Zoaz eta aska ezazu!

Romulok armada txiki bat antolatu zuen, artzain gazteez osatua, eta erregearen jauregirantz abiatu zen. Borroka latz baten ostean, etsaiak gailendu eta anaia askatzea lortu zuen gero anaia biek beren aitona Numitor aurkitu eta zegokion tronua itzuli zioten. Esker onez beterik, hauxe esan zien Numitorrek bilobei:

- Har ezazue gogokoen duzuen lurraldea. Zuentzat izango da.

Romulok eta Remok, luzaroan pentsatu ondoren, otsoemeak aurkitu zituen ibaiertzaren aldea aukeratu zuten.

- Lurralde honetan -esan zuten-, biotako batek hiri berri bat sortuko du eta bere izena emango dio.

Romulok bi idi hartu, idiok uztartu eta zirkulu handi bat egin zuen goldeaz, muino osoa inguratzen zuena.

- Hauxe izango da hiriaren kokalekua. Lurrean egin dudan ildo honetan, gaindiezinezko harresiak eraikiko dira eta haien barruan babestuko dira hiritarrak.

Lurralde haietako artzain eta nekazari guztiek barre egiten dioten Romulori. Muino hartan harriak eta sasiak baino ez zituzten ikusten. Baina urteen buruan, Romulok egindako ildoaren gainean harresi sendoak eraiki ziren eta haien babespean hiri handi bat sortu zen. Hiri horri Erroma jarri zioten izena, beraren sortzailearen omenez. Eta denboraren poderioz, Erroma inperio ikaragarri bezain boteretsu baten hiriburu bilakatu zen.

Elezaharra

 Ariketak erantzuteko erabili itzazu letra larriak. Kontuz izan ortografiarekin kontuan izango baita erantzuna ona den ala ez zehazteko.

1. Lotu hitzak esanahi egokiarekin:

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Elezaharra• Anaia bikiak• Idiak uztartu• Ildo | <ul style="list-style-type: none">• erditze berean jaiotzen diren anaiak.• idiak uztarrian lanerako lotu.• goldez lurrean egiten den irekidura luzea.• gertakari errealak eta asmatuak nahasten dituen kontakizuna. |
|--|--|

2. Nola zuten izena anaia bikiak?

3. Zenbat urte zituzten Romulok eta Remok ibaien utzi zituztenean?

☐

2 urte

☐

4 urte

☐

0 urte

4. Nork hazi zituen haurrak?

Lehenik _____ eta gero _____

5. Zein zen bikien eta Numitorren, benetako erregearen, arteko harremana?

6. Zergatik aitortu zion artzainak Romulori ez zela beraren aita?

Beraren aitona Numitor zela jakin zezan.

☐

Remo aska zezan.

☐

Tronua azpikieriaz hartu zuenaz mendeka zedin.

☐

7. Nork eman zien Romulori eta Remori Erroma sortzeko lurraldea?

----- Zergatik? -----

8. Zergaitik sortu zuten Erroma Tiber ibaiaren ertzean??

9. Zer egin zuen Romulok Erromaren kokalekua markatzeko?

☐

a. Harresia eraiki zuen.

☐

b. Ildoa egin zuen goldeaz muinoaren inguruan.

10. Osatu istorioaren laburpena.

Romulo eta Remo _____ utzi zituzten. Otsoeme batek
_____, harik eta _____ arte. Artzainak esan
zienez, _____ Numitor erregea zen. _____
lurralde bat eman zien eta _____ bertan markatu zuen gerora hiri
bat sortuko zen lekua. Hiri horri _____ jarri zioten izena.